



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

## **DATORREN ASTELEHENEAN, UZTAILAK 21, ZERBITZUAN JARRIKO DA “GAZTE” TITULU BERRIA BIZKAIBUSEN ETA METRO BILBAON.**

- **BIZKAIAN ERROLDATUTA DAUDEN 26 URTETIK BEHERAKO PERTSONENTZAT DA**
- **%50eko DESKONTUA DAUKA TXARTEL SOLTEEN ALDEAN ETA %20-30ekoa CREDITRANSEKO TARIFEN ALDEAN.**
- **TXARTELA NAHI DUTENEK METRO BILBAOKO, TERMIBUSEKO NAHIZ BILBOBUSEKO BEZEROENTZAKO INFORMAZIO BULEGOETAN EMAN DEZAKETE IZENA.**

Datorren astelehenetik aurrera, Bizkaian erroldatutako 26 urtetik beherako pertsonek deskontu handiak lortu ahal izango dituzte Bizkaibusen eta Metro Bilbaon egiten dituzten bidaietan.

Horretarako, bezeroentzako arreta bulegoetariko edozeinetan errolda-agiria aurkeztu beharko dute, garraio publikoko zerbitzu berri horretan alta hartzeko eta euren Barik txartela eguneratzeko.

Barik txartel pertsonalizatuaren formatuarekin (txartel argazkiduna eta besterenezina), behin alta hartutakoan, hileko titulu berri hori kargatu ahal izango dute eta eskaintzen dituen deskontuak aprobetxatu.

Alta hartu ondoren, nahi dituzten errekargak egin ahal izango dituzte, Metro Bilbaoko bezero izango direnek metroko edozein txartel-makinatan eta Bizkaibusekoek Bizkaiko operadore horren kabinetan eta ohiko estanko, kiosko eta saltokietan.

Aurrezpen handiaz ari gara: txartel soltea baino %50 merkeago, eta gaur egun Barik txartelarekin Bizkaibusen eta Metro Bilbaon ordaintzen diren Creditrans tarifak baino %30 eta %20 merkeago, hurrenez hurren.

Titulu berrien prezioak aldatu egingo dira erabiltzaileak txartelean sartu nahi dituen eremuen kopuruaren arabera. Alegia, 29, 34, 39, 52 edo 70 euro ordainduko dira, Bizkaiko zenbat eremu aukeratzen diren, 1, 2, 3, 4 edo 5 eremu. Gazte Bizkaibus eta Gazte Metro tituluak (izen hori ipini diete) garraio mota bakarreko tituluak dira, hau da, aukeratzen den garraiobidean bakarrik erabili ahal izango dira.

Neurri horren bitartez, Bizkaiko 26 urtetik beherako pertsonei erraztasun gehiago eman nahi zaizkie lurraldeko garraio publikoa erabiltzeko orduan.